

EUSKARA IKASTEKO LAGUNTZA EKONOMIKOEN DEIALDIA
(2023ko urritik 2024ko irailera bitartean egindako ikastaroa)

Tafallako Udalak, Euskara Zerbitzuaren bitartez, dirulaguntzak emanen ditu euskara ikasteko, honako hauen arabera:

1. XEDEA

2023-2024 ikasturtean Tafallako helduei euskara ikasteak sortu dien gastuen zati bat finantzatzea da deialdi honen helburua.

2. BALDINTZAK

2.1. Eskatzailearena.

Honako baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak eskatu ahal izanen dute euskara ikasteko laguntza:

- a) 16 urtetik gorakoak izatea.
- b) Tafallan erroldatuta egotea. Ikastaroa amaitzen den egunean erroldatuta jarraitu beharko da laguntza osoa jasotzeko. Bestela, kalkulu proportzionala egingen da baja-dataren arabera.
- c) Deialdi honetan ezin izanen dute parte hartu administrazio publikoren bateko langile izanik euskalduntze plan espezifikoetan sartuta dauden Tafallako pertsonak.
- d) Nafarroako Gobernuak urtero argitaratzen du euskara ikasteko dirulaguntzen deialdia. Euskara ikasten ari den Tafallako ikasleak, lehenik eta behin, dagokion laguntza eskatu beharko dio Nafarroako Gobernuari. Bigarrenik, Tafallako Udalari. Eskatzaileek jasotako laguntza guztien berri eman beharko diote Tafallako Udalari. 2. eranskina.
- e) Tafallako Udalarekiko zerga-betebeharrak egunean izatea, eta hori ofizioz egiaztatuko du Udalak. Egunean ez badago, onuradunak laguntzaren zenbatekoaren eta zorraren arteko aldea jasoko du, baldin eta alde hori positiboa bada eskatzailearentzat.

2.2. Ikastaroak.

a) Diruz lagunduko dira ikastaro homologatu estentsiboak (120 ordu baino gehiago), trinkoak (70 ordu baino gehiago), barnetegiak (7 egun gutxienez) eta autoikaskuntzakoak. Deialditik kanpo geratzen dira azterketa-tasen, liburuen edo bestelako material didaktikoen gastuak eta ikastetxera joateko gastuak.

b) Eskatzaileek maila bereko ikastaro baterako bakarrik jaso ahal izanen dute laguntza, salbuespenezko kasuetan izan ezik. Kasu horietan, organo eskudunak behar bezala baloratuko ditu, eta eskatutako gutxieneko bertaratzea egiaztatzen bada (eskola-ordu guztien % 80).

2.3 Bateragarritasuna

Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak bateragarriak dira beste edozein erakunde publiko edo pribatuk helburu bererako ematen dituenekin, betiere finantzaketaren gainekoak ez badira. Horrelakorik gertatuz gero, idatziz jakinarazi beharko zaio Udaleko Euskara Zerbitzuari, dirulaguntzaren zenbatekoa dagokion gehieneko mugaraino murrizteko. 2. Eranskina.

3. ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEAK ETA LEKUA.

Eskaerak Tafallako Udaleko Erregistro Orokorrean edo Egoitza Elektronikoko aurkeztuko dira deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo 15 egun baliodunetan. Epea luzaezina izanen da, eta ez da epez kanpoko eskaerarik onartuko.

4. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Instantzia orokorrarekin batera, 1. eranskina (Tafallako Udalean eska daiteke edo web orriaren bidez deskargatu), honako hauek aurkeztuko dira:

4.1 Ikastaroa antolatzen duen erakundearen ziurtagiria, ikastaroaren baldintzak zehaztuta: iraupen-datak, maila, ordu-kopurua, bertaratzea eta ikastaroaren kostua. Laguntza kobratu ahal izateko, laguntzak % 80tik gorakoa izan beharko du.

4.2 Matrikula ordaindu izanaren egiaztagiria (banketxeak edo ikastaroa antolatu duen erakundeak emana).

TAFALLAKO UDALA

DATUEN BABESA. Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoarekin bat, Tafallako Udalak behar diren neurriak hartuko ditu bere datuen isilpeko tratamendua bermatzeko. Herritarrek emandako datu pertsonal horien bilketa, tratamendu eta lagapenaren helburua aurkeztutako eskaeraren kudeaketa administratiboa baizik ez da. Herritarrek noiznahi erabili ahal izanen dute sartu eta zuzentzeko eskubidea. Nafarroako Plazako 5ean dagoen Jendea Hartzeko Bulegora joz (Posta kodea: 31300 - Tafalla; telefona: 948 70 18 11).

AYUNTAMIENTO DE TAFALLA

PROTECCION DE DATOS. De acuerdo con lo establecido en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, el Ayuntamiento de Tafalla adopta las medidas oportunas para garantizar el tratamiento confidencial de sus datos. La finalidad de la recogida, tratamiento y cesión de estos datos personales facilitados por la ciudadanía es exclusivamente la gestión administrativa de la solicitud presentada. La persona podrá en todo momento ejercitar su derecho de acceso y rectificación dirigiéndose a las Oficinas de Atención al Público ubicadas en Plaza de Navarra, 5 - Código Postal 31300 - Tafalla, teléfono 948 7018 11

4.3 Dirulaguntza sartu nahi den banku-libretaren lehen orriaren fotokopia.

4.4 Gizarte Segurantzaren ziurtagiria.

4.5 Nafarroako Foru Ogasunaren ziurtagiria, zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzeko.

4.5 Nafarroako Gobernuak jasotako laguntza guztien jakinarazpena. 2. eranskina.

Akatsak zuzentzea. Aurkeztutako eskabidean dokumenturen bat edo daturen bat falta bada, Udalak hamar egun naturaleko epea izanen du eskabidea osatzeko, jakinarazpena jasotzen duenetik zenbatzen hasita. Epe hori igaro ondoren eskatutako dokumentazioa edo datuak aurkeztu ez badira, eskatzaileak eskabideari uko egiten diola ulertuko da.

5. LAGUNTZEN ZENBATEKOA

5.1 Deialdi honen xedea gauzatzeko, 2024ko aurrekontuetan onartutako partida erabiliko da, eta horretarako 5.000,00 euro erabiliko dira, 0 3350 4800001 aurrekontuko partidatik datozenak “Euskara ikasteko laguntza ekonomikoak”.

5.2 Laguntza matrikularen gastuaren % 50ekoa izanen da, 250 € gehienez ere.

5.3 Nolanahi ere, eta aurrekontu-erabilgarritasunaren arabera, eskaerakopuruak deialdirako gordetako diru-kopurua gainditzen badu, ezarritako baldintzak betetzen dituzten onuradunen artean hainbanatuko da.

6. EBAZPENA ETA JAKINARAZTEKO EPEA.

6.1 Dirulaguntza emateko prozedura antolatu, bideratu eta ebazteko organo eskuduna Alkatetza izanen da, bere garaian eskumenak eskuordetzeko egin diren dekretuak kontuan hartuta.

6.2 Laguntzak emateari buruzko ebazpenak udalaren web-orrian eta Iragarki Taulan argitaratuko dira (www.tafalla.es), eta interesdunek kontsultatu ahal izanen dute emandako zenbatekoa. Ukatutako eskaeren kasuan bakarrik jakinaraziko da posta ziurtatuaren bidez.

TAFALLAKO UDALA

DATUEN BABESA. Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoarekin bat, Tafallako Udalak behar diren neurriak hartuko ditu bere datuen isilpeko tratamendua bermatzeko. Herritarrek emandako datu pertsonal horien bilketa, tratamendu eta lagapenaren helburua aurkeztutako eskaeraren kudeaketa administratiboa baizik ez da. Herritarrek noiznahi erabili ahal izanen dute sartu eta zuzentzeko eskubidea, Nafarroako Plazako 5ean dagoen Jendea Hartzeko Bulegora joz (Posta kodea: 31300 - Tafalla; telefona: 948 70 18 11).

AYUNTAMIENTO DE TAFALLA

PROTECCION DE DATOS. De acuerdo con lo establecido en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, el Ayuntamiento de Tafalla adopta las medidas oportunas para garantizar el tratamiento confidencial de sus datos. La finalidad de la recogida, tratamiento y cesión de estos datos personales facilitados por la ciudadanía es exclusivamente la gestión administrativa de la solicitud presentada. La persona podrá en todo momento ejercitar su derecho de acceso y rectificación dirigiéndose a las Oficinas de Atención al Público ubicadas en Plaza de Navarra, 5 - Código Postal 31300 - Tafalla, teléfono 948 7018 11

6.3 Eskatzaileek laguntzaren %50 jasoko dute Udaleko Euskara Zerbitzuak aldeko txostena egin ondoren eta Alkatetzak dagokion ebazpena eman ondoren, bere garaian eskumenak eskuordetzeko egin diren dekretuak aintzat hartuta.

6.4 Ordainketa behin bakarrik egingen da banku-transferentzia bidez, emandako kontu korrontearen zenbakira, dirulaguntza emateko ebazpena eman eta hilabeteko epean.

3. DIRUA ITZULTZEKO PROZEDURA

Emandako dirulaguntza itzultzeko prozedura Tafallako Udalaren Dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzan araututakora egokituko da.

4. ERREKURTSOAK

Ebazpen horrek amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta, horren aurka, errekurtsio hauetako bat ezar daiteke, nahi izanez gero:

- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa Nafarroako Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioko organo eskudunari, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik kontaktzen hasita.
- Gora jotzeko errekurtsioa ezestea Nafarroako Administrazio Auzitegian, ebazpen hau jakinarazi eta hilabeteko epean.
- Berraztertzeko errekurtsioa, egintza egin duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Tafalla, 2024ko urria.

ANEXO 1. ERANSKINA

Don/Doña / Jaun/Andrea	DNI / N.A.
Domicilio / Helbidea	Código Postal / Posta Kodea
Localidad / Herria	Nº teléfono/ Telefono zk.

En nombre propio o en representación de (táchese lo que no proceda).

Bere izenean edo ondoko honen izenean (ezabatu, behar ez dena)

Don/Doña /Jaun/Andrea	DNI / N.A.
Domicilio / Helbidea	Código Postal / Posta Kodea
Localidad / Herria	Nº teléfono/ Telefono zk.

DATOS BANCARIOS - BANKU-DATUAK

ES _ _ _ _ _ _ _ _ _ _	Titular / Titularra
------------------------	---------------------

DATOS DEL CURSO DE EUSKERA - EUSKARA IKASTAROAREN EZAUGARRIAK

Centro de euskaldunización / Euskaltegia	
Nivel / Maila	
Horario / Ordutegia	
Precio de la matrícula / Matrikularen prezioa	

Documentos adjuntados (4. punto de la convocatoria). Marcar X en el cuadro correspondiente. Honekin batera aurkeztutako agiriak (deialdiaren 4. puntua). Idatzi X dagokion laukian

Instancia de solicitud de subvención - Diru laguntza eskabidea	
4.1 Certificado de la entidad organizadora - Ikastaroa antolatzen duen entitatearen ziurtagiria	
4.2 Justificante del pago de la matrícula (100%) - Matrikula ordaindu izanaren egiaztagiria (%100)	
4.3 Fotocopia de la primera hoja de la libreta (IBAN) - Libretaren lehenbiziko orrialdearen fotokopia (IBAN)	
4.4 Certificado de la Seguridad Social - Gizarte Segurantzaren ziurtagiria	
4.5 Certificado de Hacienda Foral de Navarra - Nafarroako Foru Ogasunaren ziurtagiria	

Tafalla, (fecha/data)

Eskatzailearen sinadura - Firma de la persona solicitante

TAFALLAKO UDALA

DATUEN BABESA. Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoarekin bat, Tafallako Udalak behar diren neurriak hartuko ditu bere datuen isilpeko tratamendua bermatzeko. Herritarrek emandako datu pertsonal horien bilketa, tratamendu eta lagapenaren helburua aurkeztutako eskaeraren kudeaketa administratiboa baizik ez da. Herritarrek noiznahi erabili ahal izanen dute sartu eta zuzentzeko eskubidea. Nafarroako Plazako 5ean dagoen Jendea Hartzeko Bulegora joz (Posta kodea: 31300 - Tafalla; telefona: 948 70 18 11).

AYUNTAMIENTO DE TAFALLA

PROTECCION DE DATOS. De acuerdo con lo establecido en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, el Ayuntamiento de Tafalla adopta las medidas oportunas para garantizar el tratamiento confidencial de sus datos. La finalidad de la recogida, tratamiento y cesión de estos datos personales facilitados por la ciudadanía es exclusivamente la gestión administrativa de la solicitud presentada. La persona podrá en todo momento ejercitar su derecho de acceso y rectificación dirigiéndose a las Oficinas de Atención al Público ubicadas en Plaza de Navarra, 5 - Código Postal 31300 - Tafalla, teléfono 948 7018 11

ANEXO 2. ERANSKINA

HELBURU BERERAKO BESTE LAGUNTZA BATZUEI BURUZKO ZINPEKO AITORPENA

Nik,.....
.....NANarekin,

ADIERAZTEN DUT

Beste administrazio publiko batzuetatik, erakunde publiko zein pribatuetatik edo partikularrengandik, naziokoak zein nazioartekoak, inolako dirulaguntzarik eskatu edo jaso ez izana, deialdi honen helburu bererako..

Deialdi honen helburu bererako beste administrazio publiko batzuei, erakunde publiko zein pribatuei edo partikularrei, estatukoei zein nazioartekoei, dirulaguntza hauek eskatu izana:

• Eskatu diren dirulaguntzak:
(Zehaztu data, entitatea, zenbatekoa)

-
-

• Eskuratu diren dirulaguntzak:
(Zehaztu data, entitatea, zenbatekoa)

-
-

Eta Tafallako Udalean horrela jasota gera dadin, 2023-2024ko deialdian euskara ikasteko dirulaguntzak eskatzeko, honako hau sinatzen dut:

DECLARACIÓN JURADA SOBRE OTRAS AYUDAS PARA EL MISMO OBJETO

Don/Doña.....
Con DNI

MANIFIESTA

No haber solicitado ni obtenido ningún tipo de subvención de otras Administraciones Públicas, Entes públicos o privados o de particulares, nacionales o internacionales, para la misma finalidad que la de esta convocatoria.

Haber solicitado las siguientes subvenciones de otras Administraciones Públicas, Entes públicos o privados o de particulares, nacionales o internacionales, para la misma finalidad que la de esta convocatoria:

• Subvenciones solicitadas:
(Indíquese fecha, entidad, importe)

-
-

• Subvenciones obtenidas:
(Indíquese fecha, entidad, importe)

-
-

Y para que así conste ante el Ayuntamiento de Tafalla, a los efectos de la solicitud de subvenciones para aprendizaje de euskera en la convocatoria de 2023-2024, firma la presente,

Tafalla, (fecha/data)

Adierazpena egiten duenaren sinadura - Firma de la persona declarante

TAFALLAKO UDALA

DATUEN BABESA. Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoarekin bat, Tafallako Udalak behar diren neurriak hartuko ditu bere datuen isilpeko tratamendua bermatzeko. Herritarrek emandako datu pertsonal horien bilketa, tratamendu eta lagapenaren helburua aurkeztutako eskaeraren kudeaketa administratiboa baizik ez da. Herritarrek noiznahi erabili ahal izanen dute sartu eta zuzentzeko eskubidea, Nafarroako Plazako 5ean dagoen Jendea Hartzeko Bulegora joz (Posta kodea: 31300 - Tafalla; telefona: 948 70 18 11).

AYUNTAMIENTO DE TAFALLA

PROTECCION DE DATOS. De acuerdo con lo establecido en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, el Ayuntamiento de Tafalla adopta las medidas oportunas para garantizar el tratamiento confidencial de sus datos. La finalidad de la recogida, tratamiento y cesión de estos datos personales facilitados por la ciudadanía es exclusivamente la gestión administrativa de la solicitud presentada. La persona podrá en todo momento ejercitar su derecho de acceso y rectificación dirigiéndose a las Oficinas de Atención al Público ubicadas en Plaza de Navarra, 5 - Código Postal 31300 - Tafalla, teléfono 948 7018 11